



Juan Gorostidi

ZAZPIGARREN HERIOTZA

erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko Ekainean

Lehen irakurketa:
Lorea Arrieta Zubillaga

Maketazioa:
Erein

Azaleko irudia:
Juan eta Irati Gorostidi

Azalaren diseinua:
Iturri

© Juan Gorostidi Berrondo

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-138-7

L. G.: SS-793/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

ZAZPIGARREN HERIOTZA

(autonomiaz eta bortxaz, dolu baterako arrastoak)

Juan Gorostidi Berrondo



erein

Iratiri

ESKERRIK ASKO:

Lorea Arrieta, Itxaro Borda, Marina De Franceschi,
Koldo Gorostidi, Juan Kruz Igerabide, Ander Iriarte,
Koldo Izagirre, Anjel Murias, Sabino Ormazabal eta *Ereingo* lagunei.

– AURKIBIDEA –

<i>Zazpigarrena, Attila József</i>	11
<i>Alabari gutuna</i>	13
LEHEN ALDEA: ERRENTERIAN IZAN ZEN	19
I. SORLEKUTIK SORTERRIRA	23
1. Langile-auzoan	24
2. Fabrika, ikastetxea	28
3. Lehen eskaintza	33
4. Indar errepresiboak, erantzun bortitzak	36
5. Beste politika baten bataioa	42
6. Lemoizerako bideak erbestera ninderaman	46
II. LANGILEAK GINENENKOZ	53
7. <i>Numax presenta</i>	59
8. Panoramika ekonomiko bat	62
9. <i>Hogei urte ez dira ezer</i>	67
10. Langileriaren zentralitatea	71
11. Borroka autonomoen loraldia eta <i>obrero-masaren</i> amaiera	74
III. SORTZE-MINEZ ERRENTERIAN	79
12. Auzotik herrira	83
13. Errepresioa kanpoan da; <i>sorberriko egoera</i>	89
14. <i>Oreretari</i> arrapostuz	95

BIGARREN ALDEA: DOLU BATERAKO ARRASTOAK	105
IV. GURE MENDEA	109
15. Sekularizazioa eta heroismoa jendarte erotizatuan	110
16. Gure mendea eta hiraren bankariak	116
17. ETAren osteko zenbait testigantza	121
18. Zulaikaren <i>Liburu zuria</i>	130
V. KALTEAZ, DAMUAZ, KONBERTSIOAZ, ERREPARAZIOAZ....	135
19. Indarkeriaz, <i>Errealaren oldartzeaz</i>	137
20. Tortura sistematikoa, <i>gertakizunik ankerrena</i> , indarkeria egunerokotuaren ispilua	144
21. <i>Edan zure biktimen odola</i> (isiltasunaren begiradapean)	150
22. Eragindako kaltearen onarpena (bi adibide)	157
23. Konbertsioa eta Posesioa. <i>Txelisen</i> kasua	162
24. Egitura sadomasokista bat	171
VI. FETITXEAK, AUTONOMIA	179
25. Hainbat fetitxe: bortxa	181
26. Hainbat fetitxe: iraultza	187
27. Hainbat fetitxe: nazioa	193
28. Ongi etorriak postmodernitateera	200
29. Bigarren txangoa Lemoizera	205
30. Autonomiaren gaurkotasuna. Dolua	216
HONDARREAN: KAFKA, KRONOS, <i>TERRA NULLIUS</i>	227
<i>Legearen aurrean</i> (Franz Kafka)	228
Kronos, ezker abertzalea eta 78ko izpiritua	231
Asteburua ez-inoren lurraldean	243
Oharrak	257
Bibliografia	275



Azaleko argazkia Lemoizko zentralaren erreaktore baten kontenedoreko horman egindako zauria-rena da, 2013ko gure "bigarren txangoan" ateratakoa. Kontatu zigutenez, dinamitaz erresistentzi proba bat egin zioten eta bertan utzi gerora (argazkia: Juan Gorostidi).

ZAZPIGARRENA

*Mundu honetara jaurtia izan bazara
hobe duzu zazpi bider jaiotzea.
Behin, suak hartutako etxe batean,
beste behin, ur izoztuzko uholde batean,
beste behin, zoroetxe asaldatu batean,
beste behin, galsoro umotu batean,
beste behin, klaustro huts batean,
beste behin zerri artean, urdandegi batean.
Sei kume daude negarrez, baina ez da nahikoa:
zuk zeuk behar duzu izan zazpigarrena.*

*Zeure bizitzaren alde borrokatu behar duzunean
zazpi erakutsi zure etsaiari.
Bat, igandeetan lanik egiten ez duena,
beste bat, astelehenean lanean hasten dena,
beste bat, kobratu gabe irakasten duena,
beste bat, itoz igerian ikasi zuena,
beste bat, baso oso baten hazia dena,
beste bat bere arbaso basatiek babesten dutena.
Baina ez dira nahikoa horien amarruak:
zuk zeuk behar duzu izan zazpigarrena.*

*Emazterik aurkitu nahi baduzu,
utz ezazu zazpi gizonen bila dezaten.
Bat, bere bihotza hitzen ordeztatzeko duena,
beste bat, non sartzen ari den erreparatzen duena,
beste bat, ameslari bat omen dena,
beste bat, gonaren gainetik haztatzeko gai dena,
beste bat, botoi eta kortxeteak askatzen iaioa,
beste bat, ostikoka tratatuko duena:
utz itzazu bere inguruan biraka eulitzarren moduan.
zuk zeuk behar duzu izan zazpigarrena.*

*Idazten baduzu eta atrebentzia horretan bazabiltza,
utzi zazpi gizoni zure poema idazten.
Batek marmolezko herrixka eraikitzen du,
beste bat, lo zegoen bitartean jaio zen,
beste batek, zeruko mapa marraztu eta ezagutzen du,
beste bat, hitzek bere izenaz deitzen diotena,
beste bat, bere arima zaildu zuena,
beste bat, arratoi biziak disekatzen dituena.
Ausartak dira bi; lau, jakintsuak;
zuk zeuk behar duzu izan zazpigarrena.*

*Dena idatzi bezala suertatzen bada,
zazpi gizonengatik hilko zara.
Bat, sehaskan kulunkatua eta bularretik hazia,
beste bat, titi tente eta gazteei atxikitzen zaiona,
beste bat, plater hutsak harrika botatzen dituena,
beste bat, pobreei irabazten laguntzen diena,
beste bat, lanean lehertzen dena,
beste bat, ilargiari begiratzearekin laketzen dena.
Mundu osoa izanen da zure hilarria:
zuk zeuk behar duzu izan zazpigarrena.*

ATTILA JÓZSEF¹

Alaba maitea,

Atzo zinematik atera eta telefonoa pizterakoan –*Nader y Simin, una separación* zen pelikula– kanpoko lagunen mezu idatziak hasi nintzen jasotzen –Barzelonatik, Andaluziatik, Madrildik...–: “Zorionak bakeagatik...”. Horrela izan nuen ETAREN azken meniaren berri, horren luze itxarondako “jarduera armatua behin betiko amaitzea” zekarrena. Gehiegi pentsatu gabe erantzun nien, filmaren eraginpean ziurrenik: “Orain hasten da zailena”.

Gaur, gaua pasatakoan, atzo baino indar handiagoz sentitzen dut filmaren inpresioa, baita ETAREN iragarpenarena ere, eta urduri nago, ordu batzuk libre lanera joan aurretik, zer egin neure buruari galdezka.

Hemendik sortu da, nonbait, zuri idazteko bulkada, orain arte gure artean modu zuzenean izan ez dugun elkarrizketa baten premiarena. Alde batetik, une honen zain nengoela konturatzen naiz, irismen eta garrantzi handiko nire isiltasunarekin amaitu behar duena, uste baitut zama horren pean ezin genuela behar bezala aritu *zama horren gainean* –azpian eta gainean, aldi berean–. Bestalde, denok espero genuen une honetan, gauzak modu harrigarrian argituko zirela susmatu izan dut betidanik, aski era irrazionalean, une labur batez izango bazen ere: egunotan, hilabeteotan piztuko den irrika berehala itzaliko baita, eta, urte gutxi-
ren bueltan, oso aspaldiko kontuez ari garela irudituko du, eta aspaldiko kontuek apenas duten eraginik inoren muinean.

Nahasketa bat suertatu da bart arratsean eta nire loaldian, eta nahasketa horren pean nago orain, zuri idazterakoan. Nahastu egin dira Termeh izeneko ha-
maika urteko neskaren hitzak pelikulan bere aitari zuzentzen zaionean ETAREN kontuarekin: “...esan zenidan ez zela larria izango”, botatzen dio aitari, eta hark, etsita: “Hala uste nuen, baina larri bihurtu da”. Neska zuhur, argi eta ausart horren begirada zuzen gardena dago filmean agertzen diren gertakizunen erdian. Guk ere, horixe bera pentsatzen genuen gure gazte-denboran Sistemaren bortxaren aurrean armaz altxatzen zirenen aurrean: “Ez da larria izango”...

Konturatzen naiz ez dugula gai hauei buruz modu zuzenean hitz egin gure artean. Zu hazten ari zinenean ETA egunerokotasunaren barruan txertaturiko zerbait zen, beste gauza larri guztiekin batera, *emana* zitzaizun gertakizuna, eta “destinoaren halabeharra” duten gauzen gainean hitzik ez egitea posible eta ohi-koa izan zitekeenez, horrekin bizi ginen. Zure eskolako gelakidea zen Andoaingo Pagaza udaltzainaren semea, eta aita hil zutenean mutikoak hamabost urte zituen, zuk bezala, eta egin zenuten protestaren bat. Gela hartan ziren, halaber, ordurako kale-borrokan aritzen ziren zenbait kide, kutxazain edo kontenedore batzuei sua emateagatik-edo kartzelan daudenak, oraino. Kontu zaharregien berritze neketsu baten aurrean sentitzen nintzelako, agian, ez nuen gaia ateratzen gure artean: bi hitz eta isiltasun etsia, besterik ez; edo arraposturik izango ez zuen zure komentarioren bat: “Haren gurasoak harro egongo dira”, edo antzeko zerbait.

Gaur, aldaketa seinalatzen duen aro honen lehen egunean, ez dakit zehazki nondik jo gutun honetan, gutuna bera delako nobedadea: zu mila kilometrora dagoen hiri batean zaudelarik, ezin dudalako notizia utzi telebistek edo egunkariek agertuko duten horretan, notiziario horietan agertuko ez den gure arteko kontu bat ere badelakoan. Eta noraez horretan nabilela otu zait galdera: Non nengoen ni zure oraingo adina nuenean? Kontuak atera eta 1979an ipini behar dut nire burua, 22 urterekin. Zertan nenbilen ni orduan? Fabrika batean ari nintzen pioi, Erreterian bizi nintzen, militantzia sutsuan, komite antinuklearretan, besteak beste. Eta urte hartan gauzatu genuen Lemoizerako ibilaldi arrakastatsua, ondo gogoratzen dudana uda eder batean. Eskizina jo dut sarera, orduko egunkariek zer zioten, eta horra:

Madrilera *El Pais*en notizia: “Lemoizen kontrako protesta, desobediencia zibila bihur liteke. Amaitu da hamazortzi egun iraun duen martxa antinuklearra. 12.000 lagun –8.000 Iberduerorentzat, 30.000 antolatzaileentzat– elkartu ziren igandean Lemoiz ondoko Goiko Solo zelaian, ibilaldiaren azken ekintza burutzerat”, eta abar.²

Eta gogoratzen jarraituz, hurrengo urtean hain zuzen ere gertatuko ziren nigan gerora eragin handia izango zuten erabakiak: lana aldatzea, bizilekuz aldatzea, antinuklearren proposamenaren porrotaz jabetzea –desobediencia zibilaren porrotaz...–. Aro berri bat zabaldu zen niretzat, eta distantzia izan zen aro horren ezaugarria.

Ustez modu naturalean hartu nuen distantzia hura, haustura nabarmena zela jabetu gabe. Erreterian pasatu nituen azken zazpi urteak ez ziren nolanahi-koak izan, eta bertako kide gehienentzat pentsatu ezinezkoa bazen herriz aldatzea –ezta auzoz ere, askorentzat; Donostiako ezein auzok ez zuen haien bizilekuarekin

zerikusirik, antza—, nik, Erreterian etxez bi edo hiru aldiz aldatu nintzen bezala, Altza aldeko dorre bateko apartamentu batera jo nuen, eta handik gutxira Nafarroara, Afrikara... Urteak pasatu ziren inguru hauetara itzuli nintzen arte, 90eko hamarkadaren hasieran. Jaiola zinen ordurako, Nafarroan, eta Donostian bizi zen giroak gutxi zuen zerikusirik 70eko Erreterikoarekin; nire aldarreak ere, gutxi. Hamar urte asko ziren gauzatu nuen haustura eta bidaia kontuan hartuta.

Nire aro berrian, berriki finkatu behar izan nuen neure burua hiri ezezagun honetara; neuk sortutako lanbide bat nuen asko eskatzen zidana, eta distantzia fisikoak eta gainerakoak markatu zituzten hurrengo urteak. Ez nuen astirik hartu aurreko urteetako distantzia porrot baten ondorengoa izan zela jabetzeko, ezta ezein porroten osteko hausturek duten dolu-izaera antzemateko ere. Gazteen kemenarekin jarraitzen nuen, atzera begiratzeko astirik gabe, iragan barneratu horren eraginak oraina zaildu eta nolabaiteko blokeora eramanez ninduen arte. Orain jabetzen naiz ezintasun horretan zeresan handia zutela barneratutako prozesu eta aldaketa haiek, eta horregatik sentitzen dudala gaur sumatzen dudanez urduritasuna; eta berriro atzoko filmak utzitako arrastoa, Termeh neska berriaren jarrera eta galderak zurekin nahasten ditut nigan.

Filma bi senar-emazteren arteko liskar eta harreman korapilatsuei buruz dela esan daiteke. Lehen sekuentzia eta azkena Termeh-ren gurasoen dibortzioa erabaki behar duen epaile baten aurrean gertatzen dira. Lehenean, neska ez dago presente, eta epaileak ez du zentzuzko arrazoirik ikusten dibortzioa justifikatzeko. Azkenean, aldiz, bai, eta erabaki nagusia da Termeh norekin geratuko den bizitzera. Bi une horien artean gertatzen dena agertzen du filmak.

Termeh-ren ama irakaslea da eta alde egin nahi du Iranetik, ez duelako bertan etorkizun onik aurreikusten. Askok kostata lortu dituzte baimenak horretarako. Banketxe bateko langilea da aita, eta ezin du Alzheimerrak jota eta beraiekin bizi den aitona abandonatu. Hortik sortzen da liskarra: “Aitak ez du semea errekonozitu ere egiten, ez daki semea duenik ere”, dio emazteak. “Baina nik bai, nik errekonozitzen dut aita”, senarraren arrapostua. Ama bere gurasoenera mudatzen da, eta aita, aitona eta Termeh, aurreko etxean geratzen dira. Aitona zaintzeko norbait behar dute, eta periferiako emazte bat kontratatzen dute: “Ordu eta erdi behar ditut hona iristeko”.

Zaintzailea, hogeita hamar urteko emaztea, lau urteko alabatxoarekin dator etxera, eta haurdun dago. Lege erlijiosoek jarraitzaile zorrotza da, eta horrek sortzen dizkio zailtasunak eta ezinegonak lehen egunetik bertatik: baimena eskatu beharko

lioke senarrari gizon baten zaintzan lanean aritzeko; baimena klerigoei ere, agurea garbitzeko eta haren gorputza ukitzeko... Une batez, gaizki sentitzen da sa-belean duen haurra mugitzen sentitzen ez duelako, eta agurea lotan eta oheari lotuta utzi, eta medikuarengana doa. Aita ohetik erorita eta konorterik gabe aurkitzen du semeak eta, gainera, gela batean zegoen dirua falta da. Bota egiten du zaintzailea, bultzatu ere bai horretarako, eta haurdu dagoen emaztea erori egiten da. Gau horretan abortua izango du ospitalean, eta Termeh-ren aitari egotzi nahi dio errua, haren bultzadaz erori eta haurra galdu duelakoan.

Zaintzailearen senarraren pertsonaia ere funtsezkoa da: kartzelan egon berri da, dirua utzi dioten hartzekodunek salatuta. Ezin die aurre egin zorrei, lanik gabe dago, depresioak jota; urduria eta biolentzia da: “dagoeneko ez dut zer galtzekorik” dio behin eta berriz, eta etengabe oldartzen da gertakari malerusen aurrean: emazteak ez du berarekin kontatu, espero zuen haurra galdu du, eta epaileak zalantzak ditu Termeh-ren aita kondenatzeko... Haren ohorea dago jokoan, eta bera ez dago prest horren aurrean amore emateko.

Filma laburbiltzen hasi natzaizunean, pertsonaia nagusia Termeh zela pentsatu dut, baina dagoeneko zalantza dut ez ote den Legea bera “pertsonaia” nagusi hori, denak baitaude *Legearen aurrean* behin eta berriz kokatzen, Legea bete edo urratu duten galderak harrapatuta. Lege horren kudeatzailea epailea da, eta errukia edo sen ona aipatzen diotenean, “ez dago nire esku” erantzuten du, *Legea Legea da* tautologia baliatuta. Geuk, urrutitik ikusten ditugu Legearen gauatzeko ñabardurak –Iran estatu islamikoa da...–, eta harritura begiratzen diogu hor gertatzen den guztiari, baina harrapatuta ere bai, pertsonaiak bezala geu guztiok ere Legearen bete beharrari edo urratu beharrari baikaude berdin lotuta. Lege horren ezaugarri bat nabarmentzen zaio pertsonaia bakoitzari, hitz bakarrean laburbildu daitekeena: Ohorea, zorrak zapalduko gizonarentzat; Aitarekiko begirunea, Termeh-ren aitarentzat; Etorkizun duina, Termeh-ren amarentzat; Jainkoaren legea betetzea, zaindari haurduarentzat... Zein leku hartzen du horretan guztian Termeh-k berak? Berak egia behar du, zintzotasuna, edo agian baldintza hori da bere buruari eta gainerako guztiei jartzen diena berak ere barnertua duen Legearen zilegatasuna bermatzeko. Egia bilatzeko erabakian filmean zehar tartekatzen diren gainerako osagaiak –gurasoen arteko harremana, harenganako duten begirunea eta konplizitate maitekorra, beste emakumearekiko eta haurrekiko sinpatia, epaitegietako agintea...– bigarren mailakoak dira, edo ez behintzat zintzotasun hori tratatzeko gai.

Bistan da filmaren gaineko beste hamaika kontsiderazio egin litezkeela, pertsonaia bakoitzari loturikoak eta osatzen duten harreman sareari buruzkoak, interes handikoak guztiak, baina tartekatu zaidan gaiarekin lotzen dudana baino ez dizut aipatuko. Hiru belaunaldi agertzen dira bertan: gurasoena –eta gainerako jende helduarena: epaileak, familiartekoak eta abar–, haurrena –Termeh eta lau urteko zaintzailearen alaba– eta hitzik egiten ez duen aitonaarena. Gure artean ere, hiru belaunaldi dira ETArekin hasieran eta bilakaera nagusian ibilitakoen artean, eta nago helduen belaunalditik zaharrena ari direla igarotzen bertan gehien nabarmendu zirenak. Eta igarotze horretan, zaharrak hitzik gabe geratzeko zorian direla, burua galduta haiek ere, baina haien presentziak –haien *Legeak*– gainerakoen betebeharra baldintzatzen jarraitzen duela, hitzak eman dezakeenaren gainetik, historia errepikatzekeo gurgil zoroaren legerari bultzaka. Eta jabetzen naiz ahalik eta modurik tinkoenean nahiko niokeela aurre egin patu horri, gurgil zoro horri, gertakarien gainean gogoetak eta hitzak ahal duten heinean, behinik behin. Eta hor piztu da, hain zuzen ere, gaur goizeko bulkada eta zurekin dolu zahar eta erdi ez-kutu baten kontuekin luzatu beharra.

Filmarekin amaitzeko, hasieran aipaturiko amaiera borobila dago. Dibortzioa erabakita dago; lehen eskaritik gertatutakoak ez du besterako tarterik uzten, eta Termeh bera dago tartean, lehen baino askoz nabarmenago. Bizitutakoak aldatu egin du, eta lehen baino askoz argiago erakutsi dio nortzuk diren bere aita eta bere ama; bere burua ere nagusitu egin da, eta gurasoek bere esku utzi nahi dute norekin biziko den inguruko erabakia. Gogorra da berarentzat –negarrari ezin eutsi dabil–, baina erabakita dago, eta horrela adierazten dio epaileari, oso garbi duela. Baina gurasoek alde egin behar dute gelatik, berak bakarrik adierazi nahi dio erabakia Legearen funtzionarioari. Aita eta ama ateratzen dira, eta bakoitza bere aldetik joaten da, epaitegia betetzen duen jende artean. Horrela amaitzen da filma, Termeh-ren erabakiaren berri jaso gabe. Erabaki eta azpimarratu behar garrantzizkoena ez baita norekin geratuko den bizitzera, bere erabakimen autonomia baizik.

Gurasoen gogo saihetsezinean dago seme-alabengan beren nahi eta frustrazioak proiektatzea. Baita horren aurrean haurrak babestea ere. Halere, asko dira oso harro daudenak beren ondorengoek bete dutelako beraiek ezin izan zutena. Kasurik perbertsoenetan, haiek koldarkeriaz gauzatu ez zutena egitera bultzatzen dituzte seme-alabak eta, hala, poetak idatzitako bertsorik ilunenak betetzen: “...begira ezan begere/ oinazearen urek landa hura ere estaltzen dinare/ aldare oro

erori den erore/ belaunaldiak lore beltzez katiatuz/ birkatiatuz lore beltzez eta iltzez lore”.³ Gertakizun honen kontzientziatik ere sortzen da gaurko bulkada, datozen hilabeteetan edo urteetan, beranduegi baino lehen, egin beharreko gogoetaren promesarekin.

Besarkada bat,
Aita

— LEHEN ALDEA —

ERRENTERIAN IZAN ZEN

Belaunaldi bakoitzak aurreko belaunaldi derrotatuetan begiratu behar dio bere buruari, menperatzaileen oraingo eta betiko dotrinak eta gizarte mekanismoak analizatu eta baloratu ahal izateko: nagusien 'demokrazia' edo 'askatasuna' zer menperatzeetan oinarritzen den, eta subalvernoen isiltasuna zer derrotatik datorren jakiteko.

Joseba SARRIONANDIA *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela 2010



Behean, Luzuriagako fabrika abandonatua Altza-Pasaiako Molinao auzoan 90eko hamarkadako argazkian. Gainean, Errenteriako Beraun auzoa. Atzean, ekialdera, Aiako Harria (Argazkia: Juan Gorostidi).

I

SORLEKUTIK SORTERRIRA

Aitona Justo, aitaren aita, itsu, bere etxe aurrean errosariyua eskutan, ahoa xuxurlan.

Suak hartzen du amets gaiztoetan eta suak esnatzerakoan.

Billabona eta Tolosako suteak, sutan ikusitako baserriak, kaleko etxeak.

Gero, fundizioa eta su hark irentsitako lankideak.

*Infernuko sua bera; misiolariak mehatxuka oihukatzen zutena,
eta haren errean pasa beharreko nekeak.*

*Suak erreak galdu zituen bi seme, umetan,
niretzat izenik izango ez zutenak, ezta berarentzat ere, ziurren,
aurpegi haiek beltzez baino ez baititu ikusten orduz gero.*

Sua baino ez bere begi itsuetan.

Uholdeak izaten ziren oso maiz amaren baserri zokoan.

Gogoratzen du urte hura, behiak ere bai errekan itota.

Langileak CAMPSAko tangetan igota, etxe azpiak uretan.

*Bota behar izan zuten baserri zahar hura eta garaiago eraiki hurrengoa.
Bere zangoak ere urez betetzen ziren, puztu, eta orratzek ziztatzen oinazpiak.*

*Ura zera ilun bat zen, dei egiten ziona, neska gazte hari bezala
jaunartzetik bueltan burua erreka presara bota zuena.*

Suaren beldurra jaso nuen aitarengandik, eta bihotzeko suharrak hil zuen.

Urarena amarengandik, eta urak ito eta eramane bera.

1. Langile auzoan

Hamar minutuan igo liteke, oinez, jairo nintzen ibar zokotik Errenteriako mendebaldeko auzune periferikoetara. Inoiz muino berde, baserri-soro izan zirenak etxez josi ziren, modu erabat kaotikoan, joan den mendeko 60ko hamarkadan, Espainiako eremu pobreenetatik, Gaztela, Extremadura eta Andaluziatik, bertako fabriketara etorritako milaka langileren lokatz arteko bizileku. Errenteria osoa, XX. mendeko 15.000 bat biztanleko populazio industrialia izatetik –“Manchester ttipia” izengoitiz, ehungintza-lantegiak nagusi ziren garaian–, Donostialdeko auzune periferiko bihurtu zen, 10-15 urteren buruan biztanleria hiru aldiz goiti biderkatu zelarik. Ibarra fabrika eta etxez gainezka, muino eta zoko guztiak bete ziren inongo ordenarik gabeko dorreez.

Tartean, *Don Bosco* zegoen, inguru osoko milaka mutikorentzat urte haietan eraikitako eskola profesionala, kongregazio salestarrak kudeatua. Ordura arte fabriketan ematen zen trebakuntza modu ordenatuagoan eskaintzeko eraikia. “Langile-hiria” deitzen zioten obrerokumez jositako inurritegi antolatu hari non, goizetik gauera, asteko zazpi egunak pasatzen genituen. 8-9 urterekin sartu eta 15-16rekin aterako ginen handik, ofizio baten jabe –arotz, mekanikari, elektrikari, kimikari–, fabriketan gero eta premiazkoagoak ziren ofizio haietarako jantziak eta, bide batez, kristau zintzoak, diziplinatuak eta obedienteak. Astean bost egunetan, eskola-diziplina –eguneroko meza eta errezoekin batera–, eta beste bietan, kirola eta aisia, erabateko industrializazioak ekarriko zuenaren aitzindari. Urrats nabarmena izan zen hura, lehenago zuzenean fabriketara bidalitako gaztetxoentzat. Ez, halere, Donostiako aberaskumeekin nahastera joaten ziren herriko pribilegiatu bakanentzat. Haien unibertsitatea zuten helburu, eta eskuak zikintzen ez zituzten ofizioen jabe egiteko bidean ziren. Bide pentsaezina gehiengoarentzat.

Hamazazpi urterekin fabrika artean zegoen gurasoen etxetik langile-azuzune haietarako egin nuen mudantzak nahiko naturala lirudike, baina hamar minutuko paseo hark bi mundu zeharo desberdin bereizten zituen: belaunaldiz belaunaldi eraikitako geografia familiar batetik mundu arrotz baterako bidea zen. Etxean ez genuen harreman handiegirik inguruko baserriekin, ezta osaba-izeba, lehengusu, ahaide eta ezagunen munduarekin ere, baina elkartzeko gintuen atmosfera bat zegoen, urte luzeetan eraikitakoa, eta nahikoa zen baserri baten izena esatea, edo familia bateko norbaitena, oso geuretzat genuen zerbait antzemateko, denok identifikatzen genuena. Gure garaian gertatzen ari zena, aldiz, urratsez urratseko

ibilaldi geldo haren erabateko antzaldaketa zen. Gurasoek, fabrika artean bizi eta bertako langile bilakatu arren, baserritar izaten jarraitzen zuten, eguneko ordu gehienak makina artean eta halako plaza erraldoia zen lantegian pasatzen bazituzten ere. Errenteriako auzune haietan, aldiz, ez zegoen nire txikitako atmosfera haren arrastorik, eta espazioan hain laburra zen distantziak bi unibertso bereizten zituen.

Mudantza haren aurretik, halere, zazpi urte iraun zuen beste deserrotze erradikalago bat bizitua nintzen dagoeneko, garai haietan –eta ez oso aspaldira arte– horren arraroa ez zena: hamaika urterekin gurasoen etxea eta Don Bosco utzi, eta fraide haien barnetegi batera eraman ninduten. Familia inguruko kanpo-loturak ia guztiz hautsiak, gogo-bizi-iraupen premiak erro berrien xerkan ipiniko ninduen, halaberharrez.

17-18 urterekin, berriz, Errenteriara aldatuta, Gaztela edo Andaluziatik lanera etorritako proletario haiek bezain arrotza nuen ni bezala inguru haietan jaiotako jendea. Gaztetasunak berezko oldarretik hainbat zuen arrotzasun hura bete beharretik ondoren etorriko zen muturreko jarrerak, gain-ahalegin hark.

Ez nuen lotura moztua *Don Bosco*ko fraideekin, eta haiek jarri ninduten harremanetan nire adineko zenbait gazterekin, ordurako ohikoak ziren gogoeta-talde kristauean. Bizpahiru hilabeteren bueltan, Arabako mortuetako apaiztegiko kumea izatetik, lantegiko peoi izatera pasatu nintzen, emigranteen auzunean literaz jositako apartamentu eskas bateko kide. Emigrante neu ere, gogo-lokarriak moztu eta berregiten saiatua betiere, beste jauzi bat egiteko prest, bizitzaren gordinenarekin beste behin tupust eginda.

Familia bat modu nahiko eskasean har zezakeen apartamentu hartan, 8-10 gazte bizi ginen, etengabeko mugimenduan. Etxea baino, etengabeko borbor geldiezin baten pausalekua zen hura: Gipuzkoa barruko herrietatik etorritako ikasle unibertsitarioak, auzuneko ikasleak edo, ni bezala, fabrikan lanean hasi berriak atzera eta aurrera.

Auzoak bere gazte-kluba zuen, eta auzo-elkartea. Parrokiako apaizen bat ere obrero zebilen, eta bertan bizi zen moja-gazte talde bat, auzoarekin engaiatuak guztiak. Hauek sustaturiko bilera eta ekimen etengabeei jarduera klandestinoak gehitu behar zitzaizkien: auzo-komite bat eratu genuen, non ezker-muturreko alderdie-tako militanteekin biltzen ginen. Komite hori alderdietan zeudenen eta ez geundenen arteko tentsio-gune ere bazen. Eskema leninistetan, abangoardia ezinbestekoa zen, eta “alderdiak” gauzatu behar zuen. Benetan, zera gertatzen zen: esparru

bera borrokatu behar zuten hamaika taldexka zeudela –bik edo hiruk *hamaika* ziruditen–, sigla hanpatuen jabe egin eta gauzarik arruntenetan beren buruaren benetakotasuna eta nagusitasuna erakutsi eta bestearen noraez *erreformista* edo *abenturazalea* salatu behar etengabean ibiltzen zirenak. Saltsa haiek ez ziren orduko giza giro eta mugiden parte baino, bazterreko kontuak, finean, egoera sozialak nahiko pisua baitzuen liskar sektarioak soberakin gisa gera zitezen: gertakarien errekak berarekin eramango zituen, beste hainbat hondakinen artean.

Hemezortzi, hogeit edo hogeita bi urterekin, denborak ahal zuena baino gehiago eskatzen nion egun bakoitzari, eta kolpeka tratatzen nituen haren muga gotorrak: kolpez esnatzen nintzen eta kolpez motorra hartu eta Donostiako beste muturrean zegoen lantegira abiatu. Kolpea zen bertako langile eta ugazabekin tratua eta indar-gastua, eta arratsaldean, auzora bueltan, ez ziren nahikoak gautu arte gelditzen ziren orduak, egin beharreko kontu guztiei aurre egiteko. Gogoan ditut gaueroko hiru ordu eskaseko loaldiak, behin eta berriz errepikatuak, eta nola sartu behar izaten nituen bi iratzargailu zaratatsu –ez ziren artean digitalak asmatu– aluminiozko lapiko pitzatu batean, lanerako behar izaten nuen itzartze bortitza bideratzeko. Gogoan ditut, halaber, “oporraldiak”, asteka xahutzen nituenak, egun osoko ardura eta dedikazioko egoeraren urgentziak lan-orduak ere eskatzen zituenean –greba orokor bat zela, edo edozein eratako urgentziatzko kanpainaren bat–. Urte osoko lau opor-asteak ahituta, bazen beste biderik denbora behar zenerako: joan medikuarengana eta baja bat eskatzea lanerako ondoeza asmatuta. Aste beteko urgentziak izaten ziren, eta mediku haiek ez zeuden gure eritasunaren benetakotasuna sakonegi haztatzeko.

Ni bezalakoak –eta asko ginela irudikatzen genuen– *Gertakarien* bultzatzaile ginen, eta bizitza eta pasadizo arruntena gertakizun bihurtzeko joera zuen gure jarrerak. Kolpez kolpe, inguratzen gintuen munduen mugak ezagutu eta, ahal zela, apurtzeko premia larrian. Nahikoa litzateke zeregin haien zerrenda osatzea gure inplikazio-maila norainokoa zen ideia bat egiteko. Auzoko arazo eta premien inguruko borrokkak zeuden batetik: ura ez zen behar bezala iturrietara ailegatzen eta kalea lokaztegia zen, edo ezinbesteko haurtzaindegia antolatu behar zen; bestetik, eraso eta probokazio larriak –emakumeen bortxaketa aldiak, esaterako–. Honek guztiak herri-mailako koordinazioa eskatzen zuen eta etengabeak ziren sortzen ziren aurre egin beharreko arazoak: fabriketako grebak, tailer baten autogestiorako proposamenak... Informazio-lanak ere egin behar ziren: gertuko kontuak, eta sare berrien sorkuntza –*Egin* egunkaria 1977an sortu zen, han eta

hemengo herri-mugimenduei atxikita, oso denbora laburrean zapuztuko zen behetik gorako dinamika berriemaile bati lotuta-. Eta horrek guztiak sortzen zuen jazarpen polizialaren aurkako lanak.

Gazteak ginen ahalegin haietan guztietan gogorren engaiatuak, eta bizi egin behar genuen, harremanak egin, maitemindu, entzun, erantzun, ikasi. “Beste gisa bateko bizimodua posiblea da, eta erdiminez dator” sentimenduak bizi gintuen. Eta denak bat egin behar zuen lelo horren barnetik, eguneroko ekonomiak nahiz mota guztietako harremanek. Bazirudien aldaketa horren ezaugarriak zehaztea ez zela gauza zaila, ezta haren aldekoak eta kontrakoak antzematea ere. Indar gazte baten eztanda zen, baina baita aro baten eztanda ere. Edo zenbait arorena aldi berean. Ez geneukan perspektiba argiegirik, egia, ez baikenekien zer bukatzen ari zen eta zer sorberritzen. Behar genuen ikuspegia emango zigutelakoan, antzinako eskema kamutsekin saiatzten ginen ikusmira argi baten faltan: gure gurasoek eta aitona-amonek bizitutako gerra garaiko balentria lausoak gogorarazi nahi zizkiguten batzuek: kolektibizazioak eta faxismoaren aurkako batasuna; Afrika, Asia eta Hego Amerikatik zetozen askapen-mugimenduen uholdearen oihartzuna ere entzuten genuen; Errusian mende hasieran eta Txinan edo Jugoslavian gero gertatutakoarena; Europan zehar piztutako hainbat mugimendu iraultzaileena... Ez genuen ia inongo zuzeneko berririk, eta lau panfletotan azaltzen ziren sinplekeriak ziren gure dogma berrien iturburuak. Belaunaldiz belaunaldi errepikatutako doktrina eta jokamoldeak erausteko prest ginen, eta ahalegin horretan gaitzezko barne- eta kanpo-erresistentziarekin egiten genuen topo.

Inertia guztien indarra haztatzeko geunden.